



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 30a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (2. or.).
- Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Luzatzea ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak (20. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (23. or.).
- 2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 27an, onetsi zuen honako foru lege-dekretu hau baliozkotzea: 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen. Foru lege dekretua 2020ko martxoaren 26ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Orobat, erabaki zuen hura foru lege proiektu gisa izapidetzea presako prozeduraz.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. eta 161. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea presako prozeduraz izapidetu dadin Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen Foru Lege proiektua (10-20/LEY-00003).

2. Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernuak izanen da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Horrela, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen egoera bereziaren ondorioz, zeharo ohiz kanpkoa baita, aparteko eta presako zenbait neurri hartu dira, osasun publikoko arrazoietan oinarrituta.

Nafarroan, osasunaren arloan, Osasuneko kontseilariak martxoaren 13ko 3/2020 Foru Agindua eta martxoaren 14ko 4/2020 Foru Agindua onetsi ditu. Hezkuntzaren arloan, Hezkuntzako kontseilariak martxoaren 13ko 26/2020 Foru Agindua eta martxoaren 15eko 27/2020 Foru Agindua onetsi ditu. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako

lantokietako prebentzioaren arloan, Lehendakari-tzako, Bertintasuneko, Funtzio Publikoko eta Bar-neko kontseilariak martxoaren 15eko 48/2020 Foru Agindua onetsi du. Azkenik, garraioen arlo-an, Garraioetako zuzendari nagusiak martxoaren 15eko 19/2020 Ebazpena onetsi du.

Foru Lege-dekretu honetan jasotzen diren neu-riak Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioan eta haren erakunde autonomoetan ezartzea eragin duten inguruabarrak, presako premia bere-zikoak, birusari eusteko eta haren prebentziarako egoera honen ondorio dira, eta COVID-19 gaitzak hedatzen jarrai dezan eragotz dezakeen neurri gisa ezartzen dira; horrenbestez, ez da, arrazoen aldetik, ahalegin gehiagorik egin behar justifika-tzeko betetzen direla kasu honetan foru lege-dekretuaren figura erabiltzeko baldintzak, Nafarro-ako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organi-koaren 21 bis artikuluan ezartzen direnak alegia; izan ere, badira oraingo egoeran ezaugarri horiek, salbuespenezko izaera, larritasuna eta garrantzia, beharrezkoa egiten dutenak arau ekintza bat bere-hala gauzatzea, Parlamentuan lege bat prozedura arruntan nahiz presakoan tramitatzeke aurreiku-sita dagoena baino epe laburragoan.

Sortutako ohiz kanpoko egoera honen aurrean eta funtsezko zerbitzu publikoak ematea bermat-zeko, langileen arloko zenbait neurri hartu behar dira, ahalbidetuko dutenak, batetik, langileen kon-tratazioak berehala egitea, eta, bestetik, sisteman ahalik eta profesional gehien sartzea, ezinbeste-koak diren lanpostuetan langile falta gertatuz gero zerbitzuak eman ditzaten, baldin eta funtsezko zerbitzu publiko horiei datxezkien lanpostuak badi-ra eta izaera guztiz ezohikoa eta salbuespenez-koa emanez.

Ikastetxe guztietan irakaskuntza presentziala bertan behera uzteak praktiketako funtzionarioei eragin diezazkiekeen kalteak direla eta, aurreikusi da irakaskuntza etenda dagoen aldia praktiketako alditzat hartzea, hautapen prozesuko praktikaldia-ren ebaluazioaren ondorioetarako.

Eskubide sozialen arloan, giza baliabideei dagozkien zenbait neurri hartzen dira zentro eta zerbitzu soziosanitarioen funtzionamendu egokia bermatzeko. Zentro eta zerbitzu horietarako langi-leak kontratatzeke zailtasunak izan daitezkeela aurreikusirik, etxeko laguntzako laguntzaileak eta zaintzaileak kontratatzeke erraztasunak ematen dira, arlo horretan aplikatzeko den araudian eskatzen diren baldintza batzuen dispentsaren bidez. Etxeko laguntzako laguntzaileen kontrata-zioetan, berriz, ahaideak kontratatzeke aukera errazten da, baldin eta kasuan kasuko titulazioa,

egiaztapena edo gaikuntza badute, eta, horrez gain, zaintzaileen, gerokultoreen, etxeko lagun-tzako laguntzaileen edo laguntzaile pertsonalen kasuan, zentro eta zerbitzu soziosanitarioetarako kontrataziarako araubide berezia Nafarroako Foru Komunitate osoan baliatu ahal izanen da. Horrekin batera, Pertsonen Autonomiarako eta Garapene-rako Nafarroako Agentziako zuzendari kudea-tzaileari gaikuntza ematen zaio dirulaguntza izen-dunen baldintzak aldatzeko eta, halatan, lanak noiznahi birbanatzeko, sortzen joan daitezkeen langile beharren arabera, funtsezko zerbitzu horiek ematea ziurtatuta egon dadin.

Foru lege-dekretu honetan jasotzen dira, oro-bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioaren eta haren foru-sektore publiko instituzio-nalaren kudeaketa eraginkorrerako neurri batzuk; horien bitartez, kontrataziarako, kontabilizaziora-ko, aurrekontu kudeaketarako eta dirulagun-tzetarako prozedurak egokituko dira behar berrie-tara, bereziki tresna malguak emanez, horiekin kutsatzeari aurre egiteko eta pertsonen laguntzeko baliabideak eskuratzeko.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan ezartzen da ezen, hondamen egoerak, arrisku larriko egoerak edo segurtasun publikoa arriskuan jartzen duten beharrianak direla-eta administrazioak berehala jardun behar duenean, kontratazio espedienteak larrialdiko tramitazioa izanen duela. Kontratazio publikorako salbuespeneko tramitazio hori ezin egokiagoa da oraingo egoerarako, hots, COVID-19 gaitzari aurre egiteko. Neurri hori bera hartzen da ente instrumentalei egin beharreko mandatue-tarako.

Halaber, egoera ahulean dauden haurren eli-kadurarako oinarrizko eskubidea bermatzeko neu-riak hartzen dira, eta gizarte zerbitzuen eta ikastetxeen arteko koordinazioa ezartzen. Aurrei-kuspen horren berehalako aplikazioa ahalbide-tzeko, beharrezkotzat jotzen da Hezkuntza Depar-tamentuak Eskubide Sozialetako Departamentuaren esku uztea Hezkuntza Depar-tamentuak gai honetarako erabiltzen dituen fun-tsak.

Neurri hori aurreikusita dago COVID-19 gai-tzaren inpaktu ekonomikoari erantzuteke presako neurriak hartzeke martxoaren 12ko 7/2020 Errege Dekretu-legearen 8. artikuluan.

Beste neurri bat ente instrumentalaren deklarazioari buruzkoa da. Ente instrumentalak arautzen dituen foru dekretua tramitazioan dagoenez, bidezkotzat jotzen da izaera instrumentala indarre-an dutenen deklarazioa luzatzea, Nafarroako Foru

Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek egindako mandatuak betetzea ez paralizatzearen, indarraldi horiek 2020ko martxoan eta apirilean bukatuko baita, sozietateen arabera, eta Administrazioaren funtzionamendurako ezinbestekotzat jotzen delako izaera bereziaz luzatzea deklarazio horiek, egoera normala izanez gero hilabete hauetan tramitatu behar zirenak.

Baimenen araubideari dagokionez, salbuespeneko baimenak emateko aukera gehitzen da, egoera hauei erantzuteko, halakorik behar bada: hondakinen kudeaketa, ekoizpen jarduera baimentzea eta nekazaritza eta abeltzaintzako elikagaien hornidura.

100 milioi euro arteko funts bat sortzen da, beharrezkoa bada handitzen ahalko dena, COVID-19ren kudeaketaren ondorioz sortzen diren aparteko gastuak arintzen saiatzeko neurriak ezartzeko, batez ere sektore hauetan: osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enplegua, familiak, enpresak, enpresa txiki eta ertainak, autonomoak, lana eta familia bateragarriak egiteko neurriak, babes soziala eta COVID-19k eragindako bestelako gastuak. Zenbateko hori gaurkotzen joaten ahal da, behar berriak sortu ahala eta horien arabera.

Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorre buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen da, enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek premia duten enpresei laguntzeko xedeaz eman ditzaketen abal edo antzeko bermeen eta maileguen gehieneko zenbatekoei dagokienez, oso litekeena delako figura juridiko horien eskaera handitzea. Hortaz, 30.000.000 eurotik 55.000.000 eurora igotzen da entitate horiek abal edo antzeko bermeatarako eman dezaketen gehieneko zenbatekoa, eta 15.000.000 eurotik 30.000.000 eurora maileguei dagokiena; horrenbestez, handitzen da entitate horien gehieneko arrisku bizia, 97.000.000 eurotik 122.000.000 eurora, abal edo antzeko bermeetarako, eta 134.000.000 eurotik 149.000.000 eurora maileguetarako.

Azkenik, tributuen arloko neurriak hartzen dira, zerga betebeharrak mugatu, eten edo geroratzeko, zergadunen gaineko inpaktu kaltegarriari aurrea hartzeko.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, aipatu neurriak berehala hartzea behar-beharrezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako, Ber-

dintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 18an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege-dekretu honen xedea da neurri bereziak hartzea koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko.

I. TITULUA

Neurri bereziak langilearen arloan

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru lege-dekretu honetan langilearen arloan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan diharduten langileei, baldin eta xedatutakoa aplikatzea ezinbestekoa bada funtsezko zerbitzu publikoak eman ahal izateko.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emandako foru agindu baten bidez onetsiko da funtsezko zerbitzu publikoen definizioa.

2. Foru lege-dekretu honek izaera gehigarria izango du Nafarroako administrazio publikoetako langile diren baina aplikazio eremuan sartuta ez dauden langileentzat.

3. Ezarritako neurriak gorabehera, langile guztiek egon behar dute zerbitzuko premiei erantzuteko moduan, eta prest egon behar dute, eskatzen zaienean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei agindutako zerbitzu publikoak emateko.

3. artikulua. Organo eskudunak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek hartzen ahalko dituzte foru lege-dekretu honetan langilearen arloan jasotako neurriak, eta haien zerbitzuko langileei eragiten ahalko diete, edozein dela ere haien araubide juridikoa. Dagozkion departamentu edo erakunde autonomoetan langilearen arloan eskudunak diren organoek erabakiko dute neurrien maila, intentsitatea, maiztasuna eta mota.

2. Foru lege-dekretu honetan jasotako neurrien gaineko ebazpenak ematen dituzten organoek Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dizkiote ebazpen horiek. Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak koordinatuko du neurri hauek indarrean dauden bitartean zerbitzuen funtzionamenduan izan duten eraginaren jarraipena.

II. KAPITULUA Neurriak

4. artikulua. Zerbitzuak emateko araubidea.

1. Langileriaren arloan eskudunak diren organoek iraupenaren edo izaeraren aldetik apartekoak diren zerbitzuak egiteko agintzen ahalko diete enplegatu publikoei, edozein dela ere haien lanpostua eta araubide juridikoa, pertsonen, ondasunen eta tokien babesa eta osasun-laguntzaren prestazioa bermatzeko.

2. Enplegatuaren egungo lanpostuari, kategoriari edo espezializazioari dagozkien zereginetatik bestelakoak diren lanak egitea agintzen ahalko zaio, betiere agindutakoa aurrera eramateko nahikoa eskarmentua eta gaitasun teknikoa badu. Bete beharreko lanpostuari dagozkion ordainsariak orain arteko jaso dituenak baino handiagoak badira, beste lanpostu horretakoak ordainduko zaizkio.

3. Orobat, departamentuen artean edo udalerri desberdinetan dauden lantokien artean mugitzeko neurriak hartzen ahalko dira.

4. Agintari sanitarioek lan unitate edo zentro bat ixtea edo horien jarduera etetea agindu duenean, haiei atxikitako langileei eskatzen ahalko zaie beste unitate organiko batean ematea errefortzuko zerbitzuak.

5. Halaber, lanaldiaren eta atsedenaldeen gaineko neurriak hartzen ahalko dira. Hartara, balio gabetu edo bertan behera uzten ahalko dira onetsitako baimenak, lizentziak, oporrak eta lanaldi murrizketak, eta horiek guztiak eta egoera administratibo oro ukatu edo eten ahal izango da. Orobat, martxoaren 14ko 39/2014 Foru Dekretua aplikatuta lana banatzeko emandako baimenak ukatzen edo eteten ahalko dira. Kasu horretan, dagokion erregularizazioa aplikatuko da ordainsarrietan, eta langilea bere lanpostura itzultzeak ez du inolaz ere ekarriko aldi baterako sinatu diren ordezkapen kontratuak suntsiaraztea.

6. Nolanahi ere, bermatu beharko da astebetean egin behar diren atsedenen batura ez dela hirurogeita hamar ordutik beherakoa izango, lanal-

dien artean batez beste hamar orduko atsedenaldea utziz.

7. Neurrien helburuak izan behar du behar bezalako arreta ematea eta laguntzea prebentzio, kontrol eta jarraipenerako baliabideei. Neurriok gradualki hartuko dira, eta eskura dauden giza baliabideak modu arrazionalen erabili beharko dira. Neurriok ez zaizkie aplikatuko haurdunei.

5. artikulua. Malgutasuna bateraezintasunen gaineko araubidean.

Kasu bakoitzean eskudun den organoak bateragarritasuna baimentzen ahal die sistema publikotik at diharduten profesionalei, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan jardun daitezten kontratazio administratiboaren araubidean.

6. artikulua. Langileak aldi baterako kontratazko zerrendak.

1. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan daudenak kontratatzen ahalko dira administrazio araubidean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen edozein kontratazio esparrutan. Ahal dela, lehentasuna emango zaio indarrean dauden kontratazio zerrendetako izangaien ordena errespetatzeari.

2. Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako organo eskudunek, salbuespenez, kontratua eskaintzen ahalko diete, administrazio araubidean, bete beharreko lanpostura egokitzeko gaitasunaren eta haran gaineko ezagutzaren aldetik egokienak diren pertsoneri.

7. artikulua. Funtzio sindikalak betetzeagatik salbuetsitako langileak itzultzea.

1. Sindikatuetan lan egiteagatik lanpostura joatetik erabat salbuetsirik dauden langileek beren borondatez eskatzen ahalko dute lanera itzultzea, COVID-19ari erantzuteko arretari lotutako laguntza-zereginak aurrera eramateko.

2. Langile horiek beren lanpostura itzultzeak ez du ekarriko egon litezkeen ordezkako langileak kentzea.

8. artikulua. Bertan behera uztea zerbitzu aktiboa luzatzeko aukeraren etetea.

Bertan behera uzten da abenduaren 23ko 29/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian jasotako etetea, aukera emateko foru lege-dekretu honetako aplikazio eremuan sartuta dauden langileei zerbitzu aktiboa luzatzeko; hori guztia, bat etorri Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasi-

boen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 32. artikulua erekin.

Edonola ere, artikulua honetan xedatutakoaren babespean luzatzen diren zerbitzu aktiboak indarrean egongo dira foru lege-dekretu honetan aurreikusitako neurriak aplikatzen diren bitartean.

9. artikulua. Erretiro egoeran dauden osasun arloko profesionalak lanera itzultzeko neurriak.

Erretiro egoeran dauden osasun arloko profesionalak, hirurogeita hamar urte baino gutxiago badituzte, zerbitzu aktibora itzultzen ahalko dira, martxoaren 15eko SND/232/2020 Aginduaren 4. apartatua xedatutako baldintzetan. Agindu horren bidez, giza baliabideen arloko neurriak eta baliabideak onetsi ziren COVID-19ak eragindako osasun larrialdi egoera kudeatzeko.

10. artikulua. Erretiro egoeran dauden Montepioko funtzionarioak lanera itzultzeko neurriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepiora atxikita dauden osasun arloko profesional erretirodunak, hirurogeita hamar urtetik beherakoak, baldin eta foru lege-dekretu honen aplikazio eremuan badaude, zerbitzu aktibora itzultzen ahalko dira, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak hala erabakita, eta aurreko artikuluan adierazitako baldintza berberetan.

11. artikulua. Guardia txandak egitetik salbuesita dauden fakultatiboak.

1. Langileriaren arloan eskudunak diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko organoek, herritarrei etengabeko osasun arreta egokia ematen zaiela bermatzeko, indarrik gabe uzten ahalko dituzte, izaera orokorrarekin edo beharrezko jotzen dituzten banakako kasuetan, 2004ko maiatzaren 6eko Erabakiaren bigarren eta hirugarren apartatuak, guardia txandetatik salbuesteari buruzkoak. Erabaki horren bidez onetsi zen Osasun Administrazioak eta sindikatuek sinatutako hitzarmena.

2. Halaber, salbuespenez eta aldi batez, indarririk gabe uzten ahalko dituzte, izaera orokorrarekin edo beharrezko jotzen dituzten banakako kasuetan, egun indarrean dauden erabakiak zaintza txandetatik salbuesteari buruz.

12. artikulua. Irakaskuntza presentziala etenda egonen den aldia 2019-2020 ikasturteko praktiketarako kontuan hartzea.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak irakaskuntza presentzialesan ezartzen duen etenaldia kontuan hartuko da 2019-2020 ikasturteko praktikaldirako,

zeina Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 4ko 3057/22019 Ebazpenean bidez ezarri baitzen, hau da, Maisu-maisuren kidegoko hautapen prozedurako praktiken fasea arautu zuen ebazpenean.

II. TITULUA

Neurri bereziak gizarte zerbitzuen arloan

13. artikulua. Etxeko laguntzako laguntzaileen kontratazioaren arloko neurriak.

Dispentsa ezartzen da ahaidetasunari eta lanbide kualifikazioari dagozkion betebeharrarako, hain zuzen ere etxeko zaintzaile profesionalen kontratazioarako Eskubide Sozialetako kontseilariaren abenduaren 19ko 476/2018 Foru Aginduaren 5. artikuluko 2.1 atalean eskatzen direnarako; foru agindu horren bidez diru-laguntzak arautzen dira, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko, zerbitzu bat kontratatuzko: zaintzaile profesional bat eta/edo zerbitzu enpresa bat. Dispentsaren ondorioz, zaintzaile profesionalari 18 urte edo gehiago izatea eta indarreko araudiarekin bat Gizarte Segurantzari afiliatu, alta eman eta kotizatuzko dagozkion baldintzak betetzea baizik ez zaio eskatuko.

14. artikulua. Landa eremuetarako kontratazio araubidea zabaltzea.

Nafarroako Foru Komunitate osora zabaltzen da landa eremuetarako kontratazio araubide berezia, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzailearen martxoaren 16ko 1880/2020 Ebazpenak, araubide hori Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duenak, araututakoa.

III. TITULUA

Neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren foru-sektore publiko instituzionalaren kudeaketa eraginkorra egiteko

15. artikulua. Kontratazio publikoaren eta mandatuen arloko neurriak:

1. Nafarroako administrazio publikoek nolana hiko neurriak hartzen dituztenean, zuzenekoak zein zeharkakoak, COVID-19ari aurre egiteko, berehala jarduteko beharra justifikatuko da Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan xedaturik dagoenaren babespean.

2. Aurreko apartatua ezarritakoarekin bat, larrialdiko tramitazioa aplikatuko zaie Nafarroako administrazio publikoek edo haien erakunde publikoek, entitate instrumentalek eta zuzenbide publiko entitateek egin beharreko kontratu eta man-

datu guztiei, halakoak egiten dituztenean pertsonak babesteko premiez eta COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuez arduratzeko.

3. Pertsonen osasuna COVID-19 gaitzetik babesteko neurriak hartzen direnean, sorturiko gastuei aurre egiteko, justifikatzeke eginen da funtsen ordainketa-agindua.

4. Gaikuntza ematen zaie kontratazio organoei berek sinatu dituzten kontratuak aldatzeko, pertsonak babesteko premiez eta COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuez arduratzeko. Kasu horietan larrialdiko tramitazioa erabiliko da.

5. COVID-19aren ondorioz, horniduretarako eta ekipamendu-erosketetarako kontratazio espedienteak larrialdiko prozeduraren bidez tramitatu behar direnean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan ezarritakoaren arabera, halakoak salbuetsirik egonen dira aurretiazko kontu-hartzea egitetik fase guztietan, azken horietan barne hartzen direla justifikatzeke ematen diren ordainketa-aginduak, horrek galarazi gabe aipatu artikuluaen bigarren paragrafoko b) letran xedaturik dagoena.

Apartatu honetan ezarritakoa aplikatuko zaio COVID-19aren ondorioz egiten den eta aurreko paragrafoan sartu ez den beste kontratazio espediente orori, baldin larrialdiko prozeduraren bidez tramitatu behar bada.

16. artikulua. Aurrekontua kontabilizatzeko eta kudeatzeko neurriak.

1. COVID-19aren ondoriozko gastuei aurre egiteko behar diren aurrekontu-zuzkiduren in-tsuldaketak funts-mugimenduzat joko dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 43. artikuluan xedatuari jarraikiz. Departamentu bakoitzaren gastuen aurrekontuko edozein partida erabiltzen ahalko da.

2. Erakunde autonomoetako titularrek izanzen dute eskumena mugimendu horiek egiteko, beren programei dagokienez.

3. Hezkuntza Departamentuak dagokion zenbatekoa jarriko du Eskubide Sozialetako Departamentuaren esku, egoera ekonomiko ahulean dauden familietako ikasleentzako jantoki-dirulaguntzaren modulua aplikatu ondoren departamentu horrek eskola-jantokien jardueratenaldian benetan arreta emaniko ikasleei.

17. artikulua. Dirulaguntzen arloko neurriak.

Gaikuntza ematen zaio Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileari dirulaguntza izendunen baldintzak aldatzeko, bermatzeko estaltzen direla funtsezkoak diren zerbitzuak pertsonak babesteko premiez eta COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuez arduratzeko.

18. artikulua. Salbuespen gisa emandako baimenak.

Koordinatuz COVID-19aren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan zehazturiko agintaritza eskudunarekin, ingurumena, animalia osasuna eta landare osasuna babesteko eta kudeatzeko arloetan baimen-araubidea duen administrazio jarduerak salbuespeneko baimenak izaten ahalko ditu, era egokian arduratu ahal izateko COVID-19 koronabirusak eragindako larrialdi egoeraz.

IV. TITULUA

Neurri ekonomiko eta fiskal bereziak

19. artikulua. Funts bat sortzea COVID-19ari lotutako gastuei aurre egiteko.

Funts bat sortzen da, 100 milioi euro artekoa eta, beharrezkoa bada, handitzen ahalko dena, beharren arabera aplika dadin, honako arlo hauetan egiten diren gastuei aurre egiteko: osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enpresak, ETEak, langile autonomoak, laneko eta familiako bizitzen bateragarritasuna, babes soziala, eta COVID-19aren ondorioz eraginiko beste gastu batzuk. Horretarako, dagozkion aurrekontu-aldaketak tramitatuko dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean xedaturik dagoenari jarraikiz.

Lehen xedapen gehigarria. Epeak etetea tributu arloan.

1. Nafarroako Foru Komunitateko eskumenen esparruan, Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusitakoarekin bat, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik 2020ko apirilaren 30era arteko aldia ez da kontuan hartuko zerga prozeduren gehiengo iraupenaren ondorioetarako, baina aldi horretan Administrazioak ezinbestekoak diren tramiteak sustatu, agindu eta betetzen ahalko ditu.

2. Aurrekoagatik ere, organo eskudunak erabaki ahalko du, ebazpen arrazoitu baten bidez, antolamendu eta instrukzioko neurriak hartzea, beharrezkoak baino ez direnak, kalte larriak saihesteko prozedurako interesdunaren eskubide

eta interesetan, baldin eta interesdunak adostasuna adierazten badu, edo interesdunak adostasuna adierazten duenean epea ez eteteko.

3. Zerga arloko araudian zerga zorra ordaintzeko aurreikusitako epeak, foru lege-dekretu honek indarra hartzean amaitu ez direnak, 2020ko apirilaren 30era arte luzatuko dira.

Foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik egindako jakinarazpenei dagozkien zerga zorra ordaintzeko epeak 2020ko maiatzaren 30era arte luzatuko dira, salbu eta arau orokorrak emandakoa luzeagoa denean, kasu horretan hori aplikatuko baita.

Era berean, hilabetez atzeratzen da indarra duten geroratzeeen martxoko mugaeguneko ordainketa, eta, horrenbestez, gainerako mugae-gunak ere hilabetez atzeratuko dira.

4. 1. apartatuan aipatzen den aldia ez da kontuan hartuko Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 55. artikuluan ezarritako epeen ondorioetarako, ez eta iraungitze epeen ondorioetarako ere.

5. 2020ko apirilaren 30ean bukatuko da epea otsail eta martxoko nahiz 2020ko lehen hiruhileko aitorpen-likidazio edo autolikidazioak eta aitorpen informatiboak aurkeztu eta haien sarrera egiteko.

6. Xedapen honetan xedatutakoa ez da aplikatuko foru lege-dekretu honek indarra hartu aurretik tramitazioa hasia duten prozeduretan.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 14. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta honela geldituko dira idatzirik:

“2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 40.000.000 euro egingen dute.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste bermeen gehieneko arrisku bizia 46.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate

publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 107.000.000 eurokoa izanen da.

4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 30.000.000 euro egingen dute.

5. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 64.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 149.000.000 eurokoa izanen da.”

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalaren deklarazioen indarra.

Luzatu egiten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalaren deklarazioen indarra, deklarazio horien epemuga arrunta hurrengo hilabetetan gertatzekoa den kasuetan, harik eta onesten den arte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalak arautzeko foru dekretua, zeina egun tramititzen ari baita.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregela-mendu bidez garatzea eta betearaztea.

1. Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

2. Gaikuntza ematen zaio tributu arloan eskumena duen departamentuko titularrari foru agindu bidez aldatzeko aitorpen-likidazio edo autolikidazioak eta aitorpen informatiboak aurkezteko eta sartzeko epeak.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea eta indarraldia.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarraldian egonen da Nafarroako

Gobernuak ezartzen duen bitartean badirauela hura onestea ekarri duen egoera bereziak, salbu eta hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoari dagokionez, Nafarroako Parlamentuak baliozkotu ondoren, indarrean segituko baitute.

Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 27an, onetsi zuen honako foru lege-dekretu hau baliozkotzea: 2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen. Foru lege-dekretua 2020ko martxoaren 26ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen foru lege dekretua. Orobat, erabaki zuen hura foru lege proiektu gisa izapidetzea presako prozeduraz.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. eta 161. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea presako prozeduraz izapidetu dadin Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen Foru Lege proiektua (10-20/LEY-00004).

2. Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean

zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatua), alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernuaren izan da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Horrela, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen egoera bereziaren ondorioz, zeharo ohiz kanpokoak baita, aparteko eta presako zenbait neurri hartu dira, osasun publikoko arrazoi-etan oinarrituta. Horregatik, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez, premiazko neurri batzuk onetsi ziren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Ohizko kanpoko premia bereziko inguruabar-ak ikusita, beharrezkoa da beste neurri sorta bat ezartzea, foru lege-dekretu honetan jaso direnak, hain zuzen.

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako zailtasunen aurrean jarduera ekonomikoari eusteko beharrezkoa den likidezia bermatzeko asmoz hartu diren neurrien artean, beharrezkoa da zenbait neurri ezartzea indarrean dauden kontratu publikoen esparrurako, izan ere, alarma egoeraren deklarazioak edo horren ondoriozko neurriek eragina izan dezakete kontratu horiek egoki bete daitezen. Hala, kontratuak eteteko edo/eta luzatzeko berariazko araubide bat aurreikusten da kontratuak suntsiaraz ez daitezen, eta behar diren baldintza eta egoerak ezartzen dira eteten diren kontratu publikoen adjudikaziodunek ordain bat hartu ahal izan dezaten kalte-galerengatik, lehenbizi, egoera honen eragin ekonomikoa arintzeko eta, ondoren, jarduera erreperatu ahal izateko.

lido beretik, zenbait neurri hartu behar dira Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren dirulaguntzak emateko baldintzak aldatu ahal izateko, dirulaguntzen xedeko zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea osorik edo partez ezinezkoa den egoeratarako.

Bestalde, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduaren bidez hainbat neurri osagarri ezarri ziren gizarte zerbitzueta egoitzen esparrua antolatzeke eta haietan informazioa banatzeko COVID-19ak eragindako osasun krisiaren kudeaketari buruz (2020ko 81. Estatuko Aldizkari Ofiziala, martxoaren 24koa). Agindu horren hiru-garren apartatuan ahalmena ematen zaio kasuan kasuko autonomia erkidegoko agintaritza eskudunari agindu horren xedeko egoitzetan esku hartzeko, lurralde horretan edo egoitza bakoitzean izurriak eta laguntza-baliabideek duten egoeraren arabera, betiere behar eta proportzionaltasun irizpideei jarraikiz. Esku-hartze horren ondorioz, osasun publikoko arrazoi justifikatuengatik honakoak agintzea aurreikusten da besteak beste: egoiliarrei alta edo baja ematea; egoiliarrei lurralde bereko beste egoitza publiko edo pribatu bat esleitzea eta hara eramatea; egoitza berriak abian jartzeko behar diren neurriak ezartzea eta dauden egoitzen edukiera edo antolaera aldatzea; eta langile publiko bat izendatzea egoitzaren laguntza-jarduera zuzendu eta koordinatzeko, martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduaren bigarren apartatuaren 1. zenbakiaren b), c) eta d) taldeetan sailkatutako pazienteak dituzten egoitzen kasuan.

Horri dagokionez, kontuan hartzekoa da, orobat, martxoaren 15eko SND/232/2020 Agindua, zeinaren bidez giza baliabideen eta baliabide materialen arloko neurri batzuk hartu baitziren COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko. Agindu horren 8. apartatuak xedatzen du ezen, COVID-19aren epidemiaren bilakaeragatik edo eraginagatik ezinezkoa bada herritarrei behar bezalako osasun laguntza ematea kasuan kasuko autonomia erkidegoak dituen baliabide material eta giza baliabideekin, autonomia erkidegoek eskura izanen dituztela osasun zentro eta establezimendu pribatuak, baita hango langileria ere, eta lan istripuetarako mutualitateak.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduketan arloan, harrerako baliabideak – apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean arautuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kudeatuak– Gizarte Zerbitzueta zerbitzuen zorroan bermatutako baliabideak dira, eta, beraz, bai baliabide horien kopurua, bai haietako bakoitzaren gehieneko iraupena, ekainaren 17ko 69/2008 Foru

Dekretuan daude arautuak, zerbitzuen zorro hori ezartzen duen arauan, alegia.

Alarma egoera eta biztanleriaren konfinamendua indarrean jarri zirenetik, lanean ari gara baliabide horietan behar bezalako baldintzak izan daitezten osasun arloko agintariak emandako gomendioak bermatu ahal izateko, hala balizko kasu positiboak bakartzeari buruzkoak, nola baliabideen erabiltzaile guztien konfinamenduari buruzkoak. Gainera, beste neurri batzuk ere aplikatu dira, eta horien ondorioz erabiltzaile batzuk lekualdatu, hori guztia osasun alertak irauten duen bitartean gerta litezkeen presako sarreretarako lekua izateko. Horren ondorioz, litekeena da baliabide horietan egoteko gehieneko aldiak aldatzea, eta, horregatik, bidezkoa da horren gaineko neurriak hartzea.

Etxebizitzaren arloan, neurrien helburu nagusia da erraztasunak ematea etxebizitza babestuen sustapenaren arloan eta etxebizitza babestuak birgaitzearen arloan abian dauden espedienteek beren bidea segi dezaten, jarduera ekonomikoaren motorrak diren aldetik, eta, halaber, egoera ekonomiko ahulean dauden familiei laguntzea, etxebizitza libre edo babestu batean errentari daudenean. Gainera, etxebizitza babestuei dagokienez, enpresa sustatzaileek errenten ordainketa atzeratzearen edo barkatzearen alde egiten du. Proposatutako neurriak erraz eta azkar ezar daitezke, eta haiei lotutako eskaerak telematika bidez aurkezten ahal dira, ezarrita dauden plataformen bitartez. Hori guztia deusetan galarazi gabe epe laburrean edo ertainean beste neurri batzuk hartzeko aukera, egoeraren arabera, gaur egun zeharo aldakorra baita.

Beste alde batetik, Nafarroako Planeamendua Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen duen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuak, azken xedapenetako bigarrenan, xedatzen du foru dekretuak sei hilabeteko epean hartuko duela indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita. Foru dekretu hori 2019ko 216. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 31koan. Hortaz, maiatzaren 1ean hartuko du indarra.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak xedatu du sektore publikoko prozedurak tramitzeko epeak etetea eta mugae-gunak bertan behera uztea. Etete horiek eragina dutenez lurraldearen antolamendurako tresnak prestatu eta onesteko prozeduretan, eta, ondorioz, baita tresna horien ondoko erregistroan ere, egoki

ikusi da foru dekretu horrek indarra hartzeko eguna atzeratzea, tresna berriak onesteko egunak eta ondoren erregistratzekoak koordinatzearen eta tresnak txertatzeko aurretiazko prestakuntzarako epe bat bermatzearen, toki entitateetako hirigintza zerbitzuei, langileei eta hautetsiei begira.

Zerga arloan, jarduera etetearen edo gutxitzearen ondorioz kaltetuak izanen diren autonomoen eta enpresen likideziari laguntzearen, neurri batzuk hartzen dira zerga betebeharrak bete ditzaten erraztasunak emateko, hots: zerga prozeduretako epeak etetea edo luzatzea; zenbait autolikidazio edo aitopen informatibo aurkezteko epeak etetea edo luzatzea; zenbait tributu zor ordaintzeko epeak etetea edo luzatzea; pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoriozko zenbait ordainketa zatikatu kentzea; eta tributu zorrak zatikatu eta geroratzeko ohiz kanpoko araudi bat ezartzea.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, aipatu neurriak berehala hartzea behar-beharrezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege-dekretu honen xedea da neurri bereziak hartzea koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko.

I. TITULUA

Neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren foru-sektore publiko instituzionalaren kudeaketa eraginkorra egiteko

2. artikulua. Kontratazio publikoaren eta itun sozialen arloko neurriak.

1. Zerbitzuak eta hornidurak emateko kontratu publikoak, segidako prestaziokoak, automatikoki etenda geldituko dira kontratua betearaztea ezinezkoa den partean, baldin eta Foru Lege-dekretu honek indarra hartzen duenean indarrean badaude, kontratu bakoitza adjudikatzeko unean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen

kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte eta COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik kontratu horiek osorik edo partez gauzatzea ezinezkoa bada; etendura kontratuaren prestazioa galarazten duen izatezko edo zuzenbidezko egoera gertatzen denetik prestazio hori berriz has daitekeen unera artekoa izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da prestazioa berriz abian jar daitekeela hura gauzatzea galarazten duten inguruabarrak edo neurriak bertan behera gelditzen direnean. Hartara, kontratazio-organoak etetea bukatu dela jakinaraziko dio kontratistari.

Aurreko paragrafo batean aipatutako kontratu bat etenda egon edo ez, haren epemugan formalizatu gabe badago kontratu berria, kontratazio-prozedurak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoak eraginda, gelditzearen ondorioz prestazioaren jarraipena bermatuko duena, eta ezin bada kontratu berria formalizatu, jatorrizko kontratua luzatzen ahalko da kontratu berria betetzen hasi arte eta, betiere, bederatzi hilabeteko eperako gehienez ere, kontratuaren gaineko baldintzak aldatu gabe eta edozein izanik ere espediente berri horren lizitazioa argitaratzeko eguna. Aipatutako martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko du, eta martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zuen.

2. Aurreko puntuan aipatutakoak ez diren zerbitzuetako eta hornidurako kontratu publikoetan, baldin eta foru lege-dekretu hau indarrean sartzen den unean indarra badute eta kontratu bakoitza adjudikatzeko unean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte, eta kontratu horien xedea ez bada bukatu COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz, kontratistak betetzen ez dituzten kontratuetan ezarritako epeak COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik, eta kontratistak berak adierazten badu bere konpromisoak beteko dituela indarrean dagoen hasierako epea edo luzapena handitzen bazaio, kasu horretan epea luzatuko zaio aipatutako arrazoiarengatik galdutako denbora bezainbeste, kontratistak ez badu bederen epe txikiagoa eskatzen. Epea luzatuko da kontratuaren unitate kudeatzaileak txostena egin ondoren (txosten horretan adieraziko da atzerapena ezin zaiola egotzi kontratistari eta COVID-19aren ondoriozkoa dela).

3. Obretako kontratu publikoak automatikoki etenda gelditzen ahalko dira, baldin eta foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean indarrean badaude, kontratu bakoitza adjudikatzeko unean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte eta COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik kontratu horiek xedea galdu ez badute, eta, egoera hori dela eta, kontratua betetzen jarraitzerik ez badago; etendura kontratua betetzea galarazten duen izatezko edo zuzenbidezko egoera gertatzen denetik prestazioa berriz has daitekeen unera artekoa izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da prestazioa berriz abian jar daitekeela hura gauzatzea galarazten duten inguruabarrak edo neurriak bertan behera gelditzen direnean. Hartara, kontratazio-organoak etetea bukatu dela jakinaraziko dio kontratistari.

4. Artikulu honetako 1. apartatutik 3. era bitartekoetan bildutako kasuetan, ez zaio zigorrik ezarriko kontratistari, ezta kontratua suntsiaraziko ere. Horrez gain, puntu honetako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak bete ondoren, kalte-ordainak jaso daitezke kontzeptu hauengatik:

1. Kontratistak kontratuaren exekuzio arruntari atxikitako langileei eteteak irauten duen bitartean benetan ordaindutako soldata-gastuak.

Artikulu honetako 2. apartatuan aipatzen diren zerbitzu edo horniduretako kontratuetan, COVID 19agatik galdutako denboraren ondorioz benetan izan diren soldata-gastu gehigarriak ordaintzeko eskubidea ez da gehienez ere kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 10 baino handiagoa izanen, BEZa barne dela.

2017ko irailaren 26an argitaratutako 2017-2021 eperako eraikuntzaren sektoreko VI. lan-hitzarmen kolektibo orokorraren edo negoziazio kolektiboaren bestelako esparruetan hitzartutako antzeko hitzarmenen arabera, obra kontratuetan ordaindu beharreko soldata-gastuak izanen dira oinarritzko soldata, eraikuntzaren sektoreko lan-hitzarmen kolektiboko 47.2.a artikuluan aipatutakoa, desgaitasunagatik osagarria, aipatutako hitzarmeneko 47.2.b. artikuluan aipatutakoa, aparteko haborokinak, aipatutako 47.2.b. artikuluan aipatutakoak, eta oporren ordainsariak, edo eraikuntzaren sektoreko beste lan-hitzarmen kolektibo batzuetan hitzartutako kontzeptu baliokideak.

Beti ere, martxoaren 14a baino lehen kontratuaren exekuzio arruntari atxikita zeuden eta kontratua berriz ezartzean atxikita dauden langileen gastuak hartuko dira kontuan.

2. Behin betiko bermea mantentzeagatik gastuak, kontratuaren etete-aldiari dagozkionak.

3. Makineriaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairu gastuak edo mantentze-lanen kostuak, baldin eta kontratistak frogatzen badu baliabide horiek ezin izan direla erabili etendako jarduera edo zerbitzua betetzea ez den beste xede baterako, eta kostu horiek ez badute gainditzen makineria, instalazio eta ekipamenduak alokatzeko edo mantentzeko kontratuak suntsiaraztearen kostua.

4. Pleguan ezarrita dauden eta kontratistak kontratuaren xederako izenpetu dituen aseguru polizei dagozkien gastuak, baldin eta kontratua etetean indarrean badaude.

Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea onartu eta artikulu honetan aipatzen diren kalte-ordainak ordainduko dira baldin eta kontratista nagusiak behar bezala frogatzen badu baldintza hauek betetzen direla:

– Hark edo kontratua betetzeko kontratatu dituen azpikontratistek eta hornitzaileek egunean zituztela beren lan eta gizarte arloko betebeharrak 2020ko martxoaren 14an.

– Kontratistak berak 2020ko martxoaren 14an egunean zituela azpikontratistek eta hornitzaileei ordaindu beharrekoak, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 153. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Puntu honetan xedatutakoa soilik aplikatuko da kontratazio organoak, kontratistak hala eskatzen duenetik bost egun naturaleko epean, kontratua hasieran hitzartutako baldintzetan gauzatzea ezinezkoa dela ikusten duenean, artikulu honetako 1. apartatutik 3.era bitartekoetan azaldutako egoerengatik. Xede horrekin, kontratistak eskaera igorriko du kontratazio organora honako hauek adieraziz: kontratua betetzea ezinezkoa egin duten zergatiak; une horretan kontratuaren exekuzioari atxikitako langileak, egoitzak, ibilgailuak, makineria, instalazioak eta ekipamenduak; eta kontratistak zergatik ezin dituen kontratu honetan aipatutako bitartekoak erabili. Eskaeran azaldutako inguruabarrak egiaztatzen ahalko dira geroago. Aipatutako epea igaro bada kontratistari berariazko ebazpena jakinarazi gabe, ezetsizat joko da.

5. Obra-emakiden eta zerbitzu-emakiden kontratu publikoetan, foru lege-dekretu hau indarrean sartzen den unean indarrean badaude, eta kontratu bakoitza adjudikatzeko unean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte, COVID-19ak izatez edo zuzenbidez sortutako egoerak eta administrazio publikoek egoera horri aurre egiteko hartutako neurriek eskubide emanen diote emakidadunari kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko, emakidaren hasierako iraupen-aldia gehienez ere 100eko 15 luzatuz edo kontratuko baldintza ekonomikoak aldatuz, kasu bakoitzean bidezkoa den bezala.

Betiere, berrorka horrek emakidadunari konpentsazioa emanen die diru-sarrerak galdu dituztelako eta jasandako kostuak handitu direlako. Horien artean daude COVID-19ak izatez sortutako egoerak irauten duen bitartean benetan ordaindu dituzten soldata-gastu gehigarri posibleak, obren edo zerbitzuen emakida-kontratuaren exekuzio arruntean aurreikusitakoekin alderaturik. Konpentsazioa eginen da soilik emakidadunak alde aurretik eskatu eta behar bezala frogatzen badu gastu horiek benetan eta eraginkortasunez izan direla eta gastu horiek zenbatekoak izan diren.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da soilik kontratazio organoak, emakidadunak eskaturik, lehen paragrafoan azaldutako egoeraren ondorioz kontratua betetzerik ez dagoela ulertzen duenean.

6. Artikulu honetako 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitakoa ez zaie inola ere kontratu hauei aplikatuko:

a) Zerbitzu edo hornidura sanitarioko, farmazeutikoko edo bestelakoetako kontratuak, haien xedea COVID-19ak eragindako osasun krisiari lotuta badago.

b) Sistema informatikoen mantentze-lanetarako kontratuak.

c) Garraioko azpiegituren eta zerbitzuen mugikortasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuetako edo hornidurako kontratuak.

Ulertzen da artikulu honetan aurreikusitako araubideak ez dituela ezertan galarazten Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak pertsonak, ondasunak eta tokiak babesteko beharrezkoak diren prestazioak bermatzeko har ditzakeen neurriak, horretarako agintari eskudun izendatzen baitu COVID-19ak eragin-

dako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 4. artikulua. Neurri horiek berekin ekar dezakete, besteak beste, aldatzea kontratuen etendura zilegi den kasuak.

7. Kontratazio organoak kontratu bat alda dezake, pertsonak babesteko premiek eta COVID-19ri aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuek eraginda, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege Dekretuaren 15. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren babesean; izan ere, foru lege horren bidez premiazko neurriak onesten dira COVID-19 koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Horrelakoetan, kontratazio organoak finkatuko ditu hasierako kontratuan ez zeuden unitate berrien prezioak edo beren ezaugarrietan funtsezko aldaketa bat izan dutenenak, eta prezio horiek nahitaezkoak izanen dira kontratistarentzat. Alarma egoera bukatutakoan, aldaketa espedientea tramitatuko da Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 143.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Aipatutako kasuetan, kontratua aldatzearen ondorioz hasieran aurreikusitako unitate kopurua murrizten bada, kontratistak ez du izanen inongo kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik.

8. Aurreko apartatuetan adierazitako neurriak aplikatuko dira, halaber, osasun arloko eta gizarte zerbitzuetako itun sozialetan.

3. artikulua. Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak emandako dirulaguntza publikoen arloko neurriak.

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak baimena ematen ahalko dute onartutako dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzeko, partez edo guztiz ezinezkoa bada diruz lagundutako jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea, COVID-19ren ondorioz edo administrazio publikoek haren aurka hartutako neurrien ondorioz. Gauzatu ezin den zatia aldatuko da, jarduera betetzea edo zerbitzua ematea galarazten duen izatezko egoera gertatzen denetik betetzea edo ematea berriz has daitekeen unera arte.

2. Foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean deituta edo onartuta dauden dirulaguntzen kasuan, baldin eta dirulaguntzaren xede diren jardueren edo zerbitzuen xedea bukatu ez bada COVID-19ren ondorioz, dirulaguntzaren onuraduna den pertsonak edo entitateak betetzen ez dituztenean oinarrietan edo hitzarmen arauemailean ezarritako epeak COVID-19ak sortutako

egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik, eta onuradunak berak adierazten badu bere konpromisoak beteko dituela hasierako epea luzatzen bazaio, kasu horretan dirulaguntza ematen duen organoak epea luzatzen ahalko dio, aipatutako arrazoiarengatik galdutako denbora bezainbeste, onuradunak txikiagoa eskatzen ez badu bederen. Epea luzatuko da dirulaguntza kudeatzen duen unitateak txostena egin ondoren (txosten horretan adieraziko da atzerapena ezin zaiola egotzi onuradunari eta COVID-19ren ondoriozkoa dela).

3. Artikulu honetako 1. apartatuan bildutako kasuetan ez da dirulaguntza itzuli beharko, eta, gainera, hurrengo apartatuan ezarritako baldintzak betez gero, kontzeptu hauek ere diruz lagungarriak izanen dira:

1. Dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituen soldata gastuak, diruz lagundutako jardueraren edo zerbitzuaren ardura duten langileei eta horiek gauzatzea ezinezkoa den denbora tarteari dagozkionak. Gehienez ere dirulaguntzaren %10 izaten ahalko dira gastu horiek.

Beti ere, dirulaguntzaren xede den jarduera edo zerbitzuaren exekuzio arruntari martxoaren 14a baino lehen atxikita zeuden eta berriz hastean atxikita jarraitzen duten langileen gastuak hartuko dira kontuan.

2. Instalazioen eta ekipamenduen alokairu gastuak edo mantentze-lanen kostuak, baldin eta pertsona edo entitate onuradunak frogatzen badu baliabide horiek ezin izan direla erabili etendako jarduera edo zerbitzua gauzatzea ez den beste xede baterako, eta kostu horiek ez badute gainditzen instalazio eta ekipamenduak alokatzeko edo mantentzeko kontratuak suntsiaraztearen kostua.

3. Oinarrietan aurreikusitako aseguru polizei dagozkien gastuak edo horien parekoak, indarrean daudenak jarduera edo zerbitzua eten behar dela onartzen den unean.

Apartatu honetako ordainketetarako eskubidea onartuko da baldin eta dirulaguntzaren onuradun den pertsonak edo entitateak behar bezala frogatzen badu baldintza hauek betetzen direla:

– Hark edo diruz lagundutako jarduera edo zerbitzua gauzatzeko kontratatu dituen azpikontratistek, beharrezkoa bada, egunean zituze beren lan eta gizarte arloko betebeharrak 2020ko martxoaren 14an.

– Onuradunak berak 2020ko martxoaren 14an egunean zituze bere azpikontratistei ordaindu beharrekoak, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren kontrako araudian ezarritako baldintzetan.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoa soilik aplikatuko da dirulaguntza ematen duen organoak irizten dionean, dirulaguntzaren onuradun den pertsonak edo entitateak hala eskatzen duenetik hasita bost egun naturaleko epean, ezinezkoa dela dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea hasieran ezarritako baldintzetan, 1. apartatuan azaldutako egoerarengatik. Xede horrekin, dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo entitateak eskaera igorriko dio organo emaileari honako hauek adieraziz: diruz lagundutako jarduerak edo zerbitzuak gauzatzea ezinezkoa egin duten zergatiak; diruz lagundutako jarduera edo zerbitzuari une horretan atxikitako langileak, egoitzak, ibilgailuak, instalazioak eta ekipamenduak; eta dirulaguntzaren onuradunak zergatik ezin dituen aipatutako bitartekoak beste jarduera batean erabili. Eskaeran azaldutako inguruabarrak egiaztatzen ahalko dira geroago. Aipatutako epea igaro bada dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo entitateari berariazko ebazpena jakinarazi gabe, ezetsizat joko da.

4. artikulua. Behin-behineko zentro soziosanitarioak.

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak zentro soziosanitario berriak abian jartzen ahalko ditu, horien bidez indartzeko edo modu alternatiboan emateko sektore kalteberak edo COVID-19ren ondoriozko osasun krisiak nahiz krisi horren kariatz harturiko neurriek ukitutako kolektiboek behar duten arreta.

2. Zentro horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren mende egonen dira organikoki, agentzia horren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 301/2019 Foru Dekretuaren 22.1 artikuluan jasotako zentro berekiak bezalaxe.

3. Zentro horietako zuzendaritza karguak izendapen librearen bidez bateko dira, Nafarroako Administrazio Publikoetako bateko edo horietako bati atxikitako funtzionarioen artean; Eskubide Sozialetako kontseilariaren foru agindu bidez izendatuko dira.

Zentro horietako zuzendarien ordainsariak atalburuen ordainsarien parekoak izanen dira, baldin eta 50 toki baino gutxiago badituzte, eta zerbitzuetako zuzendarien ordainsarien parekoak, 50 toki baino gehiago badituzte.

5. artikulua. Osasun Departamentuaren eskura jartzea osasun zentro eta establezimendu pribatuak eta laneko istripuen mutualitateak, eta horietan aritzen diren langileak.

Osasun Departamentuaren eskura jartzen ahalko dira, Osasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez, osasun zentro eta establezimendu pribatuak eta laneko istripuen mutualitateak, baita horietan aritzen diren langileak ere, beharrezkoa den denbora tarterako, COVID-19ren epidemiak aurrera egitearen edo kalteak sortzearen ondorioz herritarrei ezin bazaie osasun arreta egokia eman osasun sistema publikoari atxikitako langileekin eta baliabide materialekin.

Aurreko paragrafoan aipaturiko entitateen zerbitzuko langileek, Osasun Departamentuaren eskura jarriak izan ondoren, dagokion entitateen zerbitzu ematen jarraitzen ahalko dute, edo osasun zentro publiko batera atxikitzen ahalko dira zuzenean; nolahi ere, indarra izaten segituko dute, ondorio guztietarako, departamentuaren eskura jarri aurretik zuten lan kontratuak, aurreikuspen sozialeko araubideak eta beste aurreikuspen, estaldura, onura, eskubide edo betebeharrak orok.

6. artikulua. Genero-indarkeriaren biktimentzako harrerako baliabideetan egoteko gehieneko aldiak.

Indarrik gabe uzten dira genero-indarkeriaren biktimentzako harrerako baliabideetan (larrialdi zentroa, babes etxea eta egoitza-pisuak), ekainaren 17ko 260/2008 Foru Dekretuak bermatutakoetan, egoteko gehieneko aldiak, alarman egoerak egoerak irauten duen bitartean.

II. TITULUA

Neurri bereziak etxebizitzaren arloan

7. artikulua. Bizigarritasun zedulen indarraldia eta sustatze eta birgaitze babestuko obrak bukatzeko epeak.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarte bukatzeko epea duten bizigarritasun zedulen indarraldia luzatzen da 2020ko abenduaren 31ra arte, bai eta bizigarritasun zedula lortzeko eskubidea ematen duten behin betiko kalifikazioena ere.

2. Etxebizitza babestua sustatzeko espedienteen kasuan, behin-behineko kalifikazioa 2020ko ekainaren 30a baino lehen lortua baldin badute, sustatzaileek 48 hilabeteko epea izanen dute – 2020ko urtarrilaren 1etik hasita– behin betiko kalifikazioaren eskaera aurkezteko, erregelamenduzko luzapena galarazi gabe.

3. Birgaitze babestuko espedienteen kasuan, behin-behineko kalifikazioa 2020ko ekainaren 30a baino lehen lortua baldin badute, birgaitze lanak gehienez 12 hilabeteko epean hasi beharko dira, behin-behineko kalifikazioa ematen denetik. Aipatu behin-behineko kalifikazioa ematen denetik hasita, 48 hilabeteko epea izanen da behin betiko kalifikazioa eskatzeko, erregelamenduzko luzapena galarazi gabe.

4. Etxebizitza arloan eskudun den departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio aurreko datak eta epeak aldatzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko foru agindu baten bidez.

8. artikulua. Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna deritzon (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbatekoa.

2019ko zerga-ekitaldirako, Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) deritzon adierazlearen balioa 8.616,98 eurokoa da.

9. artikulua. Etxebizitza babestua sustatzea.

Etxebizitza libreak eta etxebizitza babestuak izan daitezke eraikin berean, eta etxebizitzetako kalifikazioak eraikin osoa edo horren zati bat har dezake, berria izanda edo lehendik egonda ere. Aurrekoa gorabehera, horren ondorioz izaten diren etxebizitza babestu guztiek bete beharko dituzte oin berriko etxebizitzetara eskatzen zaizkien baldintza tekniko guztiak.

Etxebizitza libreak eta babestuak izanen dituzten eraikinetan sustatutako etxebizitzaren kasuan, ez da aplikatzekoa izanen lurzorua eta urbanizazioaren kostuaren gehieneko jasanarazpenaren betebeharra.

10. artikulua. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa.

1. 2020ko apirilaren 1etik aurrera, eta betiere ekitaldi horretan, honako hauek egiten ahalko dute emantzipaziorako errentamenduagatikoen kenkaria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 68 quinquies artikulua A apartatuan zehaztua dagoena: Nafarroan erroldaturik egonda, eta kenkaria egin ahal izateko gainerako baldintzak betez (salbu eta adinari dagokiona), 2020ko martxoaren 14tik aurrera langabezian lan eskatzaile gisa inskribatzen direnak. Izan ere, egun horretan deklaratu zen alarma egoera COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

2. 2020ko apirilaren 1etik aurrera, eta betiere ekitaldi horretan, etxebizitza errentamenduagatikoenkaria egin ahal izateko, ez da beharrezkoa izanen gutxienez urtebete eramatea inskribatua etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan, eta errentamendu kontratu ikus-onetsiari dagokionez ere ez da gutxienerako epe hori eskatuko. Hala, nahikoa izanen da etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehenagotik, errentamenduaren modalitatean edo erosteko aukera duen errentamenduaren modalitatean, edo, bestela, etxebizitza babestu baten errentari izatea eta Administrazioak egun hori baino lehen ikus-onetsia izatea kontratua. Kenkari hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 68. quinquies artikulua B.1.a) apartatuan jasota dago.

11. artikulua. Etxebizitza babestuetako errentarientzako dirulaguntzak.

1. Alokairu Poltsan sartutako etxebizitzen edo etxebizitza babestuen errentamendu kontratuetako titularrei ematen zaizkien dirulaguntzak automatikoki berrituko dira, betiere 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era eskatu behar diren kasuetarako.

2. Aurrekoa gorabehera, 2020ko martxoaren 31n dirulaguntza baten onuradun ziren familia-unitateen edo pertsonen kasuan, kasu guztietan aitortuko den dirulaguntza-portzentajea errentaren %75ekoa izanen da, 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era arteko aldirako.

3. Errentaren ordainketan interesik gabeko berandutze bat ematen duten enpresa errentatzaileek, baita errentariek ordaindu beharreko kopuru guztiak edo parte bat barkatzen dutenek ere, eskubidea izanen dute errentamenduagatik hila bete horiei dagokien dirulaguntza jasotzeko. Dirulaguntzak ordaintzeko aldizkako eskaeran, enpresa errentatzaileek zehaztu beharko dute zein familia eta pertsona errentari izan diren berandutze edo barkatze horren onuradun.

4. Etxebizitza arloan eskudun den departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio aurreko datak eta epeak aldatzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko foru agindu baten bidez.

III. TITULUA

Zerga arloko neurri bereziak

12. artikulua. Epeak etetea zerga arloan.

Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen eremuan, Hitzarmen Ekonomikoan ezarririk

dagoenarekin bat, neurri hauek ezartzen dira tributu prozeduretako aurkezpen eta ordainketa epeei eta epeen kontaktari dagokienez :

1. 2020ko ekainaren 1era luzatzen da 2020. urteko lehen hiruhilekoko balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenak, likidazioak edota autoliquidazioak, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edota ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontrako atxikipenak aurkezteko eta ordaintzeko epea.

2020ko apirilaren 30era arte luzatzen da otsailari dagozkion aipatutako zerga aitortpenak, likidazioak edota autoliquidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea, baita aurkezteko epearen amaiera martxoan edo apirilean duten aitortpen informatiboak aurkezteko epea ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunetatik jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten horiek ez dira beharturik egonen 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak autoliquidatzera eta ordaintzera.

2. Araubide berezi erraztua eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia 2020. urtean aplikatzeari uko egiteko epea, baita ekitaldi horretan ondorioak izan beharreko uko hori errebokatzea ere, 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

Era berean, 2020. urtean zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzeari uko egiteko epea, baita ekitaldi horretan ondorioak izan beharreko uko hori errebokatzea ere, 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

3. Zerga arloko araudian zerga zorra ordaintzeko aurreikusitako epeak, 2020ko martxoaren 14a baino lehen amaitu ez direnak, 2020ko apirilaren 30era arte luzatzen dira.

2020ko martxoaren 14tik aurrera egindako jakinarazpenei dagozkien zerga zorrak ordaintzeko epeak 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen dira, salbu eta arau orokorrak emandakoa luzeagoa denean, kasu horretan hori aplikatuko baita.

Era berean, hilabetez atzeratzen da indarra duten geroratzeen 2020ko apirilaren 5eko mugaeguneko ordainketa, eta, horrenbestez, gainerako mugaegunak ere hilabetez atzeratzen dira. Ez da berandutze interesik sortuko, epe bakar batean ere ez, apirilaren 5etik maiatzaren 5era bitarte.

4. 2020ko martxoaren 14tik 2020ko apirilaren 30era bitarte bere horretan mantenduko dira tributu itzulketen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortutako bestelako ordainketen

ofiziozko konpentsazioak, eta konpentsazio horien ondoriozko premiamendu probidentziak emanen dira.

5. 4. apartatuan adierazitako epea ez da kontuan hartuko zerga prozeduren gehieneko iraupenaren ondorioetarako, baina aldi horretan Administrazioak ezinbestekoak diren tramiteak sustatu, agindu eta betetzen ahalko ditu.

Epe hori, era berean, ez da kontuan hartuko alegazioak aurkeztearen ondorioetarako, ez eta errekerimenduei erantzutearen edo errekurtsio zein erreklamazio ekonomiko administratiboak jartzearen ondorioetarako ere. Nolanahi ere, zergapekoak errekerimenduari kasu egiten badio edo alegazioak aurkezten baditu tramitea egin dela joko da.

6. 4. apartatuan aipatzen den aldia ez da kontuan hartuko Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 55. artikuluan ezarritako epeen ondorioetarako, ez eta iraungitze epeen ondorioetarako ere.

13. artikulua. Zerga arloko zorrak salbuezpenez geroratzea.

1. Jarduera ekonomikoak gauzaten dituzten nortasunik gabeko pertsona eta erakundeetatik 2019an eragiketen bolumena 6.010.121,24 euro baino handiagoa izan ez duten horien zerga zorrak —2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarte borondatez aurkeztu eta ordaindu behar dagoen aitorpen-likidazioei edo autolikidazioei dagozkienak—, geroratzen ahalko dira, konturako ordainketarik egin gabe, bermerik eskatu gabe eta berandutze interesik sortu gabe, hori guztia artikuluan honetan xedatutakoarekin bat, eta baldin eta eskatzaileak, gerorapena emanda ere, zerga arloko betebeharrak betetzen baditu gerorapenaren indarraldi guztian.

2. Era berean, jarduera ekonomikoak egiten dituzten nortasun juridikorik gabeko pertsonen eta erakundeen zerga zorrak baldintza berberetan geroratzen ahalko dira, baldin eta 2019an 6.010.121,24 euroko eragiketa bolumena gainditzen ez badute eta zor horiek badagozkie aurreko artikuluko 3. apartatuaren bidez borondatez ordaintzeko epea luzatu zaien jakinarazpenei.

3. Salbuepenezko geroratze hori aplikatzen ahalko zaie Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 48.3 artikuluko b) eta d) letretan adierazitako zerga zorrei ere (erregelamendu hori uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

4. Artikulu honetan aipatzen diren zor geroratuak ordainketa hiru hilabetez etengo da, aitor-

penaren eta ordainketaren borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretatik aurrera, zatikatuta ordainduko dira, zenbateko bereko hileko lau kuotatan.

5. Geroratze horien eskaera geroratze eredu ofiziala erabiliz egiten da, soilik Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoaren bidez aurkezten ahalko delarik, eta Diru-bilketa Zerbitzuko titularrak ebatziko du.

6. Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita seigarren xedapen gehigarriko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira inola ere zenbatuko xedapen honen babesean emandako geroratzeak, ez horiek emateko ezta etorkizuneko geroratzeak emateko ere.

Lehen xedapen gehigarria. Aldatzea 253/2019 Foru Dekretua, urriaren 16koa, Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen.

Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena aldatzen da; hartara, testu hau izanen du:

“Azken xedapenetako bigarrena.—Indarra hartzea. Foru dekretu hau indarrean sartuko da bi hilabeteren buruan, zenbatzen hasita COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak indarra galtzen duenetik, edo, bestela, haren luzapenek”.

Bigarren xedapen gehigarria. Aldatzea Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

26. zenbakia aldatzen da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 35.I.B) artikuluan (apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina); hartara, testu hau izanen du:

“26. Mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan nobazioak egiten direnean Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean, bai eta COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren babesean ere, horiek formalizatzeko eskritura publikoak

salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuantatik”.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzen diren xedapenak.

1. Ondorioak 2020ko apirilaren 1etik aurrera hasita, hogeita zazpigarren xedapen iragankorra indargabetzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia).

2. Lehen xedapen gehigarria indargabetzen da Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuan.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea eta indarraldia.

1. Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarrean egonen da Nafarroako Gobernuak ezartzen duen bitartean badirauela hura onestea ekarri duen egoera bereziak, foru lege-dekretu honen 8., 9. eta 11.3 artikuluetan xedatutakoa izan ezik. Halaber, foru lege-dekretu honetan onetsitako neurrien artean iraunaldi zehatza dutenek hura beteko dute.

2. Foru Lege-dekretu honen 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren neurriek izanen dituzte ondorioak 2020ko martxoaren 15etik aurrera.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Luzatzea ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehendakaritzak proposatuta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 16ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen, besteak beste, zeinaren bidez onesten baitira COVID-19 koronabirusari aurre egiteko kontingentzia-planaren osagarri diren ohiz kanpoko euste-neurriak.

Neurri horien 1. apartatuaren 1. paragrafoan honako hau xedatzen da: "Jarduera parlamentarioa murriztu egiten da 2020ko martxoaren 23tik 29ra bitartean, biak barne, eta murriztapen hori luzatu ahalko da, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak horretarako erabakia hartu ondoren, 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 13ra bitartean, biak barne. Horretarako, martxoaren 27an (ostirala) Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura bat eginen da, aipatu neurriak berrikusi eta berresteko".

Kontuan izanik luzatu dela martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratzeko, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko) eta aipaturiko luzapen horren beharra badagoela, hona ERABAKIA:

1. COVID-19 koronabirusari aurre egiteko kontingentzia planaren osagarri gisa honako ohiz kanpoko euste-neurri hauek onestea:

“Ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak

1. Jarduera parlamentarioa murriztea.

Jarduera parlamentarioa murriztu egiten da 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 13ra bitartean, biak barne, eta murriztapen hori luzatu ahalko da, baldin eta aurrez Mahaiak eta Eledunen Batzarrak erabaki hori hartzen badute.

Hala eta guztiz ere, epe horretan zilegi izanen da Mahaiak eta Eledunen Batzarrak beharrezkotzat jotzen diren bilkurak egin ditzaten; bilera horiek bideokonferentziaz eginen dira.

Lehendakariak, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak zilegi izanen dute aintzat hartzea beste organo parlamentario batzuen bilkura zehatzetarako deialdia egitea, baldin eta beharrezkotzat jotzen badira egungo egoerarengatik; kasu horretan, segurtasuna bermatu eginen da bilera horietan, egokitzat jotzen diren bideak erabiliz.

Aurrekoa aplikatuz, Foru Araubideko Batzordea astero bilduko da, goian adierazitako segurtasun-bermeak ezarrita, Covid-19 koronabirusaren krisiari erantzutearren Gobernua hartzen ari den neurrien jarraipena egiteko. Bilkura horretan, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria eta egokitzat jotzen dituen gobernuko kideak agertuko dira, eta Legebiltzarreko talde parlamentarioetako eta foru parlamentariaren elkartetako ordezkari batek parte hartuko du, zeinak haien izenean jardunen baitu. Nolanahi ere, agerraldiak osoko bilkuren aretoan eginen dira.

Bilkura horietan, talde parlamentarioen eta foru parlamentariaren elkartearen informazio- eta dokumentazio-eskaerei erantzunen zaie. Eskaera horiek Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bidez

bideratuko dira aldez aurretik; izan ere, aipatutakoak batzordea bildu baino berrogeita zortzi ordu lehenago bilduko dira.

2. Izapideak eta epeak etetea.

Foru parlamentariak ekimenak erregistratu ahalko dituzte ezarritako bide telematikoen bidez. Hala ere, luzatu egiten da Mahaiak eta Eledunen Batzarrak 2020ko martxoaren 16an adostutako gai parlamentario guztien izapideen etendura, baita haien epeak ere. Etete hori amaitu egiten da COVID-19ko krisiak sortutako ezohiko egoera honi amaiera ematen zaionean.

Administrazio-epetegi dagokienez, etenda gertatzen dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera, (Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko).

3. Eraikinerako sarbidea mugatzea.

Arau orokor gisa, Nafarroako Parlamentuaren erakinek itxita jarraituko du, bai eta bertako zerbitzu guztiek ere; izan ere, itxialdia 2020ko martxoaren 16ko 15:00etan hasi zen, eta 2020ko apirilaren 13ra arte (azken hori barne) iraunen du. Itxialdia luzatzen ahalko da, baldin eta aurrez Mahaiak eta Eledunen Batzarrak erabaki hori hartzen badute.

Dena den, beharrezkoak jotzen diren pertsonen presentzia fisikoa baimenduko da, ezinbestekoak diren eta nahitaez presentzialki egin beharrekoak diren zereginak egin ditzaten. Orobait baimenduta dago garbiketa-langileak eta mantentze-lanak egiten dituzten enpresetakoak sar daitezten, horien zereginak egitea ezinbestekoa bada instalazioen funtzionamendu egokirako edo suertatzen diren larrialdiei erantzuteko.

Nolanahi ere, egonaldia mugatuta egonen da beharrezkoak diren eginkizunak betetzeko ezinbestekoa den denborara, eta egonaldia betiere egiten da segurtasun-bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

6. Telelana ezartzea.

Ohiz kanpoko euste-neurrien luzapena erabakidenez, oro har, 2020ko martxoaren 30etik aurrera telelanaren sistema ezartzen da Nafarroako Parlamentuan beren eginkizunak telelan-erregimenean

bete ditzaketen langile guztientzat, baldin eta ekipo eta erreminta informatikoak badituzte, betiere Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia eraentzen duten arauari jarraituz. Arau horiek 2020ko martxoaren 25eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

7. Lan presentziala etetea.

Nafarroako Parlamentuko langileak lan presentziala egitetik salbuetsita egonen dira, baina lokalizatzeko moduan egon beharko dute, haien beharra badago ere, Zerbitzu Orokorretako buruari emandako telefonoaren bidez edo Parlamentuan haietako bakoitzak duen posta elektronikoa- ren bidez.

Telelanaren araubidearen bidez bere funtzioak betetzerik ez duten langileen egoera ezinbesteko egin behar bat egitearen parekotzat joko da, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamenduko 28. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Kanpotiko zuzeneko sarbidea duten telefono finko guztiak haien gailu mugikorretara desbideratu beharko dira ahal bada, egoera honek dirauen bitartean egin litezkeen deiei erantzun ahal izateko; eta, beharrezkoa bada, dagokion zerbitzuko buruari helarazi beharko zaizkio.

Era berean, langile horiek ahal dutenean erantzun beharko diete beren mezu elektronikoei; eta, beharrezkoa bada, dagokion zerbitzuko buruari helarazi beharko dizkiote.

8. Erregistroa eta jendearentzako arreta.

Lan presentzialaren etenak dirauen bitartean, erregistro guztiak telematikoki egiten dira, Nafarroako Parlamentuaren Erregistro telematikoa- ren edo erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus posta elektronikoa- ren bitartez.

Etenda gertatzen dira jendeari arreta emateko zerbitzu presentzialak. Zerbitzu horiek telefono bidezko arretaren bidez (948 209 209) eta telematikoki emanen dira, honako posta elektronikoko helbideen bidez:

erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus

protokoloa@nafarroakoparlamentua.eus

10. Indarra hartzea.

Neurri hauek indarra hartuko dute sinatzen diren unean”.

2. Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

3. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean honako neurri hauek argitaratuko dira: 1, 2, 3, 6, 7, 8 eta 10. zenbakiak dituztenak.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 27an egindako bileran, baliozkotu zuen 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2020ko martxoaren 19ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean

eta 2020ko martxoaren 26ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki horiek argitara daitezen agintzen dut.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 27an egindako bileran, baliozkotu zuen 2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2020ko martxoaren 26ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofizia-

lean eta 2020ko martxoaren 26ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki horiek argitara daitezen agintzen dut.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

